

# BIKMOR 2001 M7,5



## Produktuaren deskribapena

- Lehorrean aurrez nahastutako zementuzko morteroa, hautatutako granulometriako kareharria eta gehigarri kimikoak.

- Kolore-gama:

|                                                                                   |         |                             |
|-----------------------------------------------------------------------------------|---------|-----------------------------|
|  | Grisa → | <b>BIKMOR 2001 ñ M7,5</b>   |
|  | Zuria → | <b>BIKMOR 2001 ñ M7,5B</b>  |
|  | Krema → | <b>BIKMOR 2001 ñ M7,5BA</b> |

- Produktu guztiak **W2** motako hidrofugazio altuko bertsioan fabrikatu daitezke.
- Hala eskatuta, beste kolore batzuetan hornitu daiteke, gehigarri bereziekin (zuntzak...) edo zementu sulforresistentearekin (SR motakoa)

## Erabilerak

- Igeltserotza-lanak: fatxadak jasotzea, hormak, trenkadak, teilak jartzea, etab.
- Erraztasunez erabiltzekoa.
- Adreiluekin, pieza silikokalkareekin, hormigoizko blokeekin edo temobuztinezko blokeekin lan egiteko egokia.
- Zarpiatze lanetarako, BIKMOR 2002 gama (eskuzko zarpiatua) edo BIKREV gama (proiektatutako zarpiatua) erabiltzea gomendatzen da

## Arreta-neurriak

- Erabili beharrek produktuaren euskarri motarako eta egingo den lan motarako egokia dela egiaztatzea
  - Produktua gomendatutako ur kantitatearekin oratzea beti, eta ez gehitzea zementua, harea, edo beste jatorrizko formula aldatzen duen edozein produktu
  - Orearen bizi-denbora gairiditu ondoren, ez gehitu oratzeko ur gehigarriak.
  - Produktua aplikatzean, giro-tenperaturak 5° C eta 35° C artekoa izan behar du.
- Saihestu hautsa arnastea eta oratutako produktuak larruazala eta begiak ukitzea. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu dagokion segurtasun-datuaren orria

## Arauk

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <br>0099                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |
| Morteros y Revocos BIKAIN, S.A.<br>Aldebarrena Auzoa 18 48212 (Mañaria)-Bizkaia<br>04<br>Nº DdP : M1                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
| EN 998-2<br><b>BIKMOR 2001-M7,5 / M7,5B / M7,5 BA</b><br>Igeltserotzarako mortero industrialak, horma,<br>zutabe eta trenkadetan erabiltzeko                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |
| <b>Konpresioarekiko erresistentzia:</b> $\geq 7,5 \text{ N/mm}^2$<br><b>Ebakitzailarekiko lotura-erresistentzia:</b> $0,15 \text{ N/mm}^2$<br><i>(tabulatutako balioa)</i><br><b>Kloruroen edukia:</b> $\leq 0,1\%$<br><b>Suarekiko erreakzioa:</b> A1 mota<br><b>Ur xurgapena:</b> $\leq W1 \text{ } \dot{O},4 \text{ kg/m}^2 \cdot \text{min}^{0,5}$<br>$\leq W2 \text{ } \dot{O},2 \text{ kg/m}^2 \cdot \text{min}^{0,5}$<br><b>Ur-lurrunarekiko iragazkortasuna</b> ( $\lambda_{10\text{dry}}$ ): $\leq 0,15/35$<br><i>(tabulatutako balioa)</i><br><b>Eroankortasun termikoa:</b> $\leq 0,82 \text{ W/mK}$<br><i>(P %50eko balio tabulatua)</i><br><b>Iraunkortasuna:</b> $\leq \text{PND}$ |

## Beste ezaugarri tekniko batzuk

- **Itxura:** ..... Hauts gris/ Zuria/ Crema
- **Granulometria:** ë .ë ë ë ë ë ë .ë 0-2mm (grisa)  
ë ë ë . 0-1,5mm (zuria eta crema)
- **Erabilera denbora (UNE-EN 1015-9):**... .. 90 min.
- **Freskoan itxurazko dentsitatea (UNE-EN 1015-6):**  
.....  $2,0 \pm 0,1(\text{gr/zm}^3)$
- **28 eguneko dentsitatea (UNE-EN 1015-10):** .....  
.....  $1,8 \pm 0,1(\text{gr/zm}^3)$
- **Uraren % (175±10 mm-ko trinkotasuna UNE-EN 1015-3):**... %13-14 (grisa) / %14-15 (zuria y crema)
- **Errendimendu teorikoa:**..... . 620 (l/ton) inguru
- **Muga-zergen partida:**..... 3824.50.90.00

### Erabiltzeko modua

- Ura gehitu (3-3,5 litro inguru zaku griserako eta 3,5-3,75 litro zaku zurirako) eta eskuz edo mekanikoki nahastu trinkotasun homogeneoa lortu arte.
- Produktua euskarrira ondo itsasteko eta behar bezala ontzeko, pieza lehorrak eta oso xurgatzaileak zertxobait busti egin behar dira.
- Saihestu izozteak, haize zakarra eta eguzki bizia. Ez erabili inoiz gainazal izoztuetan.
- Giro hezean eta xurgapen txikiko euskarriekin, gogortzea luzatu egiten da. Eguraldi oso lehorrekin, gogortzea laburtu egiten da.

### Hornidura

- 20 eta 24 m<sup>3</sup> edukierako siloetan, obretan zisterna kamioien bidez betetzen direnak.
- Siloek produktua automatikoki eta etengabe jasotzeko ekipoak izan ditzakete, obra-beharren arabera.
- 25 kg-ko paper-zakuetan. Paletizazioa: 60 zaku/palet (1500 kg)
- Hornidura, indarrean dauden Kontratazio Baldintza Orokorren arabera arautuko da beti.

### Biltegiratzea

- Siloan bermatuta dago produktuak bere ezaugarriak bere horretan mantentzen dituela fabrikazio-datatik aurrera, bi hilabetez.
- Zakuetan bermatzen da produktuak bere ezaugarriak bere horretan mantentzen dituela urtebetez, fabrikazio-datatik aurrera, betiere leku estali eta lehorrean kontserbatzen bada.

### Bezeroari arreta emateko zerbitzu teknikoak

- Produktuak aukeratzeari, erabiltzeari edo aplikatzeari buruz zalantzarik izanez gero, kontsultatu alde aurretik gure bezeroaren arretarako zerbitzu teknikoarekin.
- Produktu berezi bat behar baduzu, gure bezeroaren arretarako zerbitzu teknikoak zure zehaztapenak zehazten lagunduko dizu, eta zure beharretara ondoen egokitzen dena garatuko.

### Oharrak

- Gure aplikazio-aholkularitza teknikoak, dela hitzekoa, dela idatzizkoa, dela saiakuntzen bidezkoa, gure jakintza eta ulermen leialaren arabera egiten da, baina KONPROMISORIK GABEKO adierazletzat baino ez dira hartu behar. Obran bertan esku hartzerik ez dagoenez, informazio horiek BIKAIN inola ere arriskuan jartzen ez duten ohar orokorrak dira.
- Fitxa teknikoak ezin ditu islatu material baten erabileran esku hartzen duten aplikazio eta faktore guztiak. Horrela, fitxa honetan deskribatzen ez diren kokapenen aurrean, gure zerbitzu teknikoarekin kontsultatzea edo aurretiko froga bat egitea gomendatzen dugu, egokia den egiaztatzeko.
- Erabiltzeko moduaren jarraibideak gure saiakuntzen eta ezagutzen arabera egiten dira, eta kontsumitzailea ez dute produktuen azterketatik edo egiaztapenetik askatzen, behar bezala erabiltzeko. Beraz, produktua erabili aurretik, erabili behar duenak zehaztu beharko du ea aurrerikusitako erabilerarako egokia den ala ez, produktua erabiltzeak sor dezakeen erantzunkizuna bere gain hartzen baitu. BIKAIN-en erantzunkizuna erabilitako salgaiaren baliora mugatuko da.
- BIKAIN enpresak, kalitate-sistemetan UNE EN-ISO 9001 Arauaren eskakizunen arabera erregistratutako enpresak, bere produktuak kalitate-laboregiak kontrolatu dituela eta fitxa teknikoetan deskribatutako ezaugarriekin bat datozela bermatzen du..

2025eko iraila

MORTEROS Y REVOCOS BIKAIN, S.A.

Aldebarrena Auzoa 18 – 48212 Mañaria (Bizkaia)

+34 946 202 496

www.bikain.com

info@bikain.com

